

Hilezkortasun nahiak hilda



Betiko gaztetasunaren iturria (1549), Lucas Cranach Zaharraren koadroa. Askok bilatu dute hilezkortasuna, baina, oraingoz, ez du inork lortu. Eta batzuek heriotza aurreratu dute ahaleaginean.

TXINA, K.A. 210. Qin Shi Huang lehen enperadorea hil zen, betiko bizitzaren bila egindako ahalegin guztiak alferrikakoak izan zirela agerian utziz. Zhifu uhartean betiko bizitzaren elixirra topatuko zuelakotan, hainbat espedizio bidali zituen Penglai mendi mitikoaren bila eta bera ere hirutan saiatu zen hara iristen. Halaber, gorteko alkimistak buru-belarri lanean jarri zituen heriotza saihesteko bidearen bila. Mende luze alkimistek merkurioa panazea horrekin lotu izan dute, eta Qin Shi Huangi ere merkurio pilulak ematen omen zizkieten.

Ustez, hilezkortasun pilula horiek pozoituta hil zen enperadorea. Hala ere, bizi zen artean, inoizko mausoleorik ikusgarriena eraikiarazi zuen, berpizteko itxaropenez, eta terrakotazko gudari ezagunen artean ehortzi zuten, garaiko iturrien arabera, merkuriozko ibai artifizialez inguratuta. Enperadorearen hilobia oraindik zabaldu ez duten arren, inguruan merkurio arrastoak aurkitu dituzte ikerlariek. Baina Qin Shi Huang bizi-rik aurkitzeko itxaropenik ez dute.

Merkurioa bezala, gazteen odola betiko gaztetasunaren elixirra izan da luzaroan. Banpiroen fenomeno ere uste horri lotuta dago. Aleksandr Bogdanov zientzialari errusiarrak odol transfusioekin hainbat esperimentu egin zituen XX. mendearen lehen herenean. Ikasle gazteen odola pertsona helduagoei sartzen zien,

baina transfusio gehienak bere buruari egin zizkion. Esperimentuen txostenetan idatzi zuen odola aldatzen hasi zenetik gazteago sentitzen zela eta buruko ilea galtzeari utzi ziola. Bogdanov 1928ko apirilaren 7an hil zen, 54 urte zituela, malaria zeukan gazte baten odola hartu ondoren. Bogdanovek ez zuen zorte handirik izan, baina odola, gehienetan, ez da merkurio bezain toxikoa, hainbat txirrindularik edo The Rolling Stones taldeko kide “betigazteek” agerian utzi dutenez.

Urre likidoa ere alkimisten edabe magikoen artean izan da luzaroan. Diana Poitiersekoa (1500-1566), Henrike II.a Frantziakoaren maitalea, metodo horren zalea zen. Garaiko kroniken arabera, Dianaren edertasuna paregabekoa zen eta 66 urterekin hil arren askoz gazteago ematen zuen. 2008an gorpuari egindako analisietan urre kantitate handiak atzeman zituzten, eta heriotzaren arrazoia metal preziatua izan daitekeela uste dute adi-tuek. Gaitz erdi, garai hartan 66 urteko bizialdia ez baitzen batere laburra.

Sokushinbutsu edo monje budisten auto-momifikazioak arrazoi espiritualagoak ditu atzean, baina emaitza bera; eternitatea jomuga, deshidratatuta hiltzen ziren lekaideak.

Gizakiak beti bilatu izan du hilezkortasuna, Antzinako Egiptoko momifikazioetatik hasi eta egungo kriogenizazioa. Baina bi kasuetan subjektua hil arte zain egoten dira metodoa aplikatzeko. Badaezpada. ■

Arrastoak

80 urte aparkalekua ordaintzen

OKLAHOMAK (AEB) hazkunde ikaragarria izan zuen 1930eko hamarkadan, petrolioari esker. Automobil parkearen hazkundera are ikusgarriagoa izan zen, erregai merkearen eskutik: hamarkada eskasean 3.000 auto izatetik milioi erdiraino iritsi zen konderria. Oklahoma Hirian zirkulatzea eta, batez ere, aparkatzea, geroz eta zailagoa zen. Orduan, hiriko Merkataritza Ganbarak Carl C. Magee abokatu eta enpresa-gizon arrakastatsua izendatu zuen Trafiko Batzordeko presidente. Arazoa konpontzeko parkimetroa asmatu eta patentatu zuen Mageek; 1935eko uztailaren 16an jarri zituzten lehenengo hamalau gailuak hiriko kaleetan. Parkimetroak onddoak bailiran ugaltu ziren berehala.

“Publikoak gustuko ditu”, esan zuen orduan *The Oklahoma News* egunkariak azken mende-ko asmakizun gorrotatuenetari-koari buruz. Egunkariaren jabea Carl C. Magee bera zen. ■



Oklahoma Hirian 1935ean jarritako lehen parkimetroetako bat.